



WINONA & GRACE

KHEA ZIATER-EN FILM ESZENIKO BAT

# WINONA & GRACE

## SINOPSIA

Bi aktore gazte zuzendari famatu baten etxean esnatzen dira, gau festa zoro baten ondoren; burua nahastuta eta pixkat mozkor oraindik, bakarrik eta apartamentuan giltzapetuta daudela ohartzen dira. Hortaz, patua onartu eta denbora tarte hori elkarrekin bizitzea erabakitzen dute, elkar deskubritzeko eta guk nortzuk diren ezagutzeko balioko duten ordu batzuk: gizarte eta lanpostu kapitalista eta konpetitibo honetan euren tokia bilatzeko borrokan ari diren bi emakume gazte, hain zuzen ere.

"*Winona & Grace*" antzezlanak aktore izatearen eta zure bizitza arteari eskaintzearen auziaren inguruko testua da. Hainbeste gorabehera dituen lanbide bat bizitzearen ezegonkortasunak eta ziurgabetasunak, "izar bat" izatearen ametsarekin talka egiten du, lanbide hori aukeratzeak dakarren errealitatea erakusteko helburuarekin.

*"Aktore izatearekin amets egitea, hau bera izatea baino bizigarriagoa da"*

Marilyn Monroe

"Zer izan nahi dugu?" galdera "Benetan nor gara?" koskan bihurtzen da. Heldutasunari buruz ere hitz egiten du lan honek, bizi-erabakiei buruz, amets hautsiei buruz, etsipenari buruz, norbait izateko exijentziari buruz... Gure bi protagonistekin batera, konfesio, negar, delirio, abesti eta barrez betetako bidaia egingo dugu "*Winona eta Grace*" antzezlanean.

# WINONA & GRACE

## PERTSONAIK



### WINONA AINHOA ARTETXE

Winona aktore gaztea da. Beti argi izan zuen, aktore izan nahi zuen eta gogor egiten du lan hori lortzeko, baina oraindik ez du horretara hurbiltzen duen paperik lortu. Izaera probokatzaileria du, bihurria eta desafiatzaileria, arriskuak hartzerakoan dudarik ez duen horietakoa eta behin eta berriro nahi duen horren atzetik doana. Ausarta eta dibertigarria, gaueko tentazio eta gehiegikerietan erraztasunez jausten da. Aurreruntz ihes egite horrek, kriston hauskortasuna ezkututzen du bere barnean, porrot egin eta bakarrik geratzearen bildurraz betea.



## **GRACE** GRACIELA DONIZ

Grace bere lehen sari handia lortu berri duen aktore gaztea da. Langile nekazina, anbizio handikoa eta zorrotza. Badaki, ordea, formak gordetzen, ondo hezita, eta erraztasun handia du bere inguruko ekitaldiek eskatzen dituzten egoeretara egokitzeko. Baina bere gaitasunetatik haratago, funtsean, Grace dirudien baino askoz sentiberagoa da, eta sekretu aitorgaitz bat gordetzen du barnean. Beldur da, bestalde, bere familiari huts egingo ote dion.

# WINONA & GRACE

FITXA ARTISTIKOA



ANTZEZLEAK

**AINHOA ARTETXE / GRACE DONIZ**

ESZENOGRAFIA ETA JANTZIAK

**AZEGIÑE URIGOITIA**

ARGIAK

**OIER ITUARTE**

BIDEOAK

**JESUS PUEYO**

SOINUA

**IBON AGUIRRE**

TESTUAK

**AINHOA ARTETXE / GRACE DONIZ/ ALEX GEREDIAGA**

AKTOREEN *COACH-A*

**ARIADNE SERRANO**

ZUZENDARI LAGUNTZAILEA

**ARRATE ETXEBERRIA**

EKOIZPENA ETA BANAKETA

**KHEA ZIATER**

DRAMATURGIA ETA ZUZENDARITZA

**ALEX GEREDIAGA**

Aktore zerrenda proiektzio handiko bi aktore gazte dira, antzerki eta ikus-entzunezko ekoizpen ezagunetan duten talentua erakutsi dutenak: *Patria*, *Hondar ahoak*, *La línea invisible*, *Stand by*, *¿Qué fue de Ana García?*, *Pikuak...*

**Khea Ziater**-en talde artistikoa **Alex Gerediaga** (Zuzendaritza), **Arrate Etxeberria** (Zuzendaritza laguntzaile eta koreografo), **Oier Ituarte** (Argiztapena) **Azegiñe Urigoitia** (Jantziak/eszenografia) **Javi Andraka** (Proiektzioak) **Son Aoujil** (Argazkiak) eta **Jesus Pueyo** (Bideoa) dira. Elkarrekin ibilbide luzea duten sortzaileen lan taldea, bakoitzak bere diziplina artistiko eta/edo teknikoan nortasun eta sentsibilizitate handia dutena.

<https://www.kheaziater.com/alex-gerediaga-kabulian.html>



Winona & Grace antzezlanaren irudia

# WINONA & GRACE

## ANTZEZLANAREN INGURUAN

Kode zinematografiko eta eszenikoen fusioak bestelako gaitasun narratiboa ematen die gure lanei, gehi estetika indartsu eta zaindua. Horrez gain, aktore-lana kalitatezkoa izaten laguntzen eta indartzen duten soinu-giroei eta anplifikazio-baliabideei buruzko lan landuaz lagunduta.

Egile gazte eta femeninoaren testu bat, ikuspuntu ezohikoa eta beharrezkoa adierazteko bizi-bultzadatik sortua. Horren bidez, gure ohiko sortzeko modua aberastu nahi dugu, bi sortzaile gazteri ahotsa emanez. Asmoa da haien kontatzeko beharraren eta konpainiaren hizkuntza bereizgarriaren arteko topagunea aurkitzea. Bi belaunaldi elkarrekin sortzen, pasarte emozional horien bila, batzuetan mingarriak, beste batzuetan zentzugabeak eta dibertigarriak, non denok onartzen dugun elkar.

### EZAUGARRI NABARMENAK:

- Eszenaratzea oso zaindua: artista sortzaileek landutako eszenografia, jantziak, argiztapena eta bideoak, lanari balio artistiko erantsia ematen diotenak.
- Baliabide narratibo, estetiko eta tekniko oso landuak: zinema, argazkigintza, soinua, musika eta mugimendua...
- Estetika zinematografikoaren jatorrizko sorkuntza. Ikuslea agertokitik pantailara eta alderantziz eramaten duen film eszenikoa.
- Egungo gaia: aktore-lanbidez hitz egiten du, bi emakume gazteren ikuspuntutik.
- Interesgarria gazteen eta helduen belaunaldientzat.
- Oso gizartiarra eta dibertigarria.



Winona & Grace antzezlanaren irudia





Winona & Grace antzezlanaren irudia

# WINONA & GRACE

## KONPAINIAREN INGURUAN

Proiektu independentea da, eta bere proposamenak antzerkiaren eta arte zinematografikoaren arteko harreman-kodeak bilatzean oinarritzen duena, bai plano estetikoan, bai plano narratiboan. Sorkuntza propioak, konbentzionalak izan gabe inoren sentsibilitatearekin zerikusia dutenak, pertsonok pentsatzen eta sentitzen dugunari buruz hitz egiten dutelako.

## ERREPERTORIOA

*FACES* (2021). Ekoizpena Arriaga Antzokia. Egilea: John Cassavettes. Zuzendaritza: Alex Gerediaga

*OYMYAKON habitación 101* (2020). Arriaga Antzokia. Egilea eta Zuzendaritza: Alex Gerediaga

*MACBETH* (2019). Ekoizpena Arriaga Antzokia. Bertsioa eta Zuzendaritza: Alex Gerediaga

*MONTEVERDI: 4º libro dei Madrigali* (2017). Arriaga Antzokia. Zuzendaritza: Alex Gerediaga

*LOS VISITANTES* (2017). Talk-Show. Gasteiz-eko Antzerki Jaialdi Int. Zuzendaritza: Unai Garate.

*MALMÖ* (2016). Arriaga Antzokia. Jatorrizko ideia eta Zuzendaritza: Alex Gerediaga.

*NOT never on time* (2014). BAD Bilbao. Jatorrizko idea eta Zuzendaritza: Alex Gerediaga

*SATISFAKTION* (2013). Formatu txikikoa. Donostiko Poltsiko Jaialdia. Zuzendaritza: Alex Gerediaga.

*LA CANCIÓN DE GLORIA* (2010). Bilboko BAD Jaialdia. Egilea eta Zuzendaritza: Alex Gerediaga.

## LINK-AK

<https://www.kheaziater.com>

<https://vimeo.com/user6587316>

<https://instagram.com/kheaziater?igshid=1kutcq6scnffl>

<https://www.facebook.com/khea.ziater>

## KONTAKTUA

KHEA ZIATER

(+34) 667715757

(+34) 695719981

[kheaziater@gmail.com](mailto:kheaziater@gmail.com)

<https://www.kheaziater.com/>

## DIRULANGUNTZA ETA KOLABORAZIOAK

